Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

223 zenbakia
2021 **apirila**

Prest!

BERBETAN: XABIER BAÑUELOS GANUZA KAZETARIA

ERREPORTAJEA: ERRONDOKO, 4 URTEZ AUZOA BERPIZTEN **BARKUA:** SOILIK BIZI. ONLYBIBE.

TOKIKOM

218-219-220-221-222-

Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu kastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

DEUSTO BIZIRIK
Comercios, servicios y hostelería de Deusto

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI GAZTEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

223 zenbakia
2021eko apirila

aurkibidea

Maider Zalbidea Pardo - Iker Basabe Mendizabal — **Iritzia** 4

María Francisca Mas Riera — **Gurera etorriak** 5

erreportajea 6
Errondoko, 4 urtez auzoa berpizten

Huste arriskuan dago Errondoko Auzo Etxea. Laugarren urteurreneko ospakizun giro betean heldu zen albistea: Eroskik maiatzaren 5erako eskatu zuen espazioaren hustea, poliziaren laguntzarekin. Auzokideak bide guztietatik ari dira Errondokoren aldeko defentsa antolatu eta hustea ekiditen saiatzen.

San Inazio eskola — **Eskolak** 10

Berrizko ermita 1696an — **Behin batean** 12

Deustuko Ikastolako jantokiko 28 langileak kaleratze arriskuan egon dira — **Artikulua** 14

berbetan 16
XABIER BAÑUELOS GANUZArekin

Motz geratu zaigu Xabier Bañuelosekin hizketaldia. Zaila izan da kontatzeko duen guztia lau orritan laburtzea. Kazetaritza, bidaiak eta arlo soziala uztartzen ditu egiten dituen gauza guztietan. Boluntariotzaren inguruan lan egiten jarraitzen badu ere, azken boladan bidaietan zentratu da batik bat. Bere ibilbide luzeari buruz aritu gara elkarrizketa lasai eta atsegin batean.

Trinitarioen komentua (1976) — **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

ARRAUNA Garaipen bikainak 40 urteak ospatzeko

ARTEA Soilik bizi. Onlybibe.

PINTXODROMOA Pesto bilbotarra

KULTUR TXOTX Maddi Argote Ledesma eta Enare Muniategi Etxabe

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Maider Zalbidea Pardo
Pedagogiako ikaslea

Enpatikoak al gara?

Apirilean gertatu zen, baina edozein hilabetetan gerta zitekeen. Nik neuk ikusi nuen. Supermerkatuko ilaran nengoen. Unibertsitatetik irten eta pare bat gauza erostera sartu nintzen. Hirurak aldera izango ziren. Etxera heldu eta bazkaldu besterik ez nuen egin nahi. Kristoren ilara zegoen. Kutxa bakarra zegoen irekita. Jendea kexatzen hasi zen. Ilara gero eta luzeagoa zen. Kutxazainaren lehenengo eguna, imajinatu dezakezue bere estres maila. Baina, apurka-apurka, aurrera egiten genuen. Nire aurreko gizonaren txanda heldu zenean, langilea bere gauzak pasatzen ari zen bitartean, bere ahotik irten ziren hamaika hitzetatik hamar ez ziren batere atseginak izan. Langilearen begiek den-dena esaten zuten gizonaren jarreraren ostean.

Hitz bat etorri zitzaidan burura: enpatia. Gaitasuna, sentimendua, zerbait lortzeko gakoa, ahalmen bat, dohain berezia…Enpatikoak al gara? Entrenatu egiten da enpatia?

Behin lagun batek esan zidan, beste pertsonekin lan egitea eskatzen duten lanbide askoren gakoa zela enpatia. Besteari ulertzea, bere azalean jartzea eta hortik abiatuta laguntza eskaintzea. Eta arrazoi osoa du; enpatiarik gabe ez genuke egoera askorik ulertuko eta, horren ondorioz, ezingo genuke lagundu.

Enpatia, agian, ez da supermerkatuko apalategietan topatu daitekeen zerbait.

Iker Basabe Mendizabal
Ikaslea deserrian

Aitzakiarik ez

Maiatzak 5. Errondoko Auzo Etxearen desalojo mehatxua. Irakurtzen duzunerako pasata egon daiteke data, baina, hori gertatu ezean, irakurri adi. Izan zaitezke gazte, agure, heldu. Egon zaitezke okupazioaren alde, kontra; izan dezakezu okupazioaren inguruko irudi desitxuratua. Beldurrez bizi zaitezke zu beldurtzeko erabiltzen dituzten telebista kateek ondo egiten dutelako haien lana.

Gazte batzuen auzoa berpizteko ahaleginak auzo hilak baino itxura hobea duenik ezin uka, ordea. 17 urte zeramatzan Navarro Villoslada kaleko Eroskiren lokalak hautsez betea. Hauts hori kendu eta liburuz bete dute, margotu, musika jarri eta hitzaldi eta eztabaida politikoz bete. Desjabetuon espazio bihurtu dute. Emaiezu aukera bat, konbentzituko zaituzte laster. Ez duzu aitzakiarik, maiatzaren 2an da manifestazioa. Gorde data, zure sentitzen ez duzun espazioa izan arren, auzo ederrago batekin amestu duten horiek babestera jaitsi zaitez behin bada ere.

Mezuak bidaltzen hasia naizela, beste bi mezu botatzea gustatuko litzaidake. Aste honetan lau urtez eraikitako hori defendatzen ibiliko zaretenoi, eutsi goiari. Trabak edonondik jarriko dizkizuete, bide gogorra izango da eta autodefentsak besterik ez du Errondoko babestuko. Desalojoa burutzera joango zareten borreroei, ez zarete ongi etorriak. Indarrez husten dituzuen ametsen tamainaren proportzio bereko erantzuna jasoko duzue. 1312.

María Francisca Mas Riera

Jatorria: Palma (Mallorca)
Bizitokia: San Inazio
Lanbidea: gizarte lana

"Mallorcara bizitzera doan jendeak tokiko hizkuntza ikastea gustatuko litzaidake"

María Francisca orain dela hiru urte etorri zen Mallorcatik Euskal Herrira Ikasketa Feministak eta Generokoak masterra ikastera. Bertan hainbat emakumeren bizipenak aztertu zituen eskaladaren munduan, ikuspuntu feministatik. Gaiaz liluraturik, ikerketarekin jarraitu du eta orain liburu bat editatzen ari da DDT ekoiztetxearekin batera, Escalantes izenekoa.

Zergatik etorri zinen Euskal Herrira?

Irailean hiru urte beteko dira etorri nintzenetik. EHUn Ikasketa Feministak eta Generokoak masterra ikastera etorri nintzen. Ez nuen luzaroan geratzeko asmorik, baina, azkenean, hemen geratu naiz.

Zer dela-eta?

Mallorcaz pixka bat nekatuta nengoen, oso txikia delako. Gainera, liburu baten proiektua nuen buruan, eta iruditu zitzaidan hemen aurrera eramateko aukera eta babes gehiago izango nituela. Mallorcan oso zaila ikusten nuen.

Zertan datza proiektuak?

Hasieran, nire master amaierako lana baino ez zen izango. Lau emakume eskalatzaile eta ezezagun elkarrizketatu nituen haien istorioak aztertzeko. Arreta jarri nahi nuen emakumeek eskalada eta genero-indarkeria bizitzeko eran, baina modu subjektiboan. Lau emakume elkarrizketatu nituen: bat Bizkaikoa, bi Mallorcakoak eta beste bat Valentziakoa, baina hemen bizi dena. Hainbeste gustatu zitzaidan haien istorioak kontatzeko prozesua, non ez nuen bertan bukatzerik nahi.

Eta nola jarraitu zenuen?

Behin akademiatik kanpo, nahi nuena egiteko askatasuna neukan. Hiru urte hauetan ikertzen jarraitu dut eta beste 16 emakume elkarrizketatu ditut (nahiz eta horietako batzuk ez diren %100 emakume gisa definitzen). Informazio guztia kapitulutan egituratu eta liburu bat egin nuen, oraindik argitaratzeke dagoena.

Non argitaratuko duzu?

DDTrekin editatzen ari naiz, euren proiektua atsegin dudalako. Gainera, beldurra ematen zidan beste argitaletxe batzuetan edukia aldarazteak edo feminismo hitza ezabatzeak. DDTko kideek proiektuaren alde egin zuten eta orain lana berrikusten ari gara. Printzipioz, aurten kaleratuko dugu.

Zertan ari zara lanean?

Gizarte-hezitzailea naiz. 2020ko martxoan konfinamendua hasi zenean, kalean bizi zen jendearentzako aterpe gisa atondu zuten Deustuko kiroldegian lan egiteko deitu zidaten. Ekainean kiroldegiak ixten hasi zirenean, Lagun Arteanek Artxandan duen baserrian migratzaile gazteekin hezitzaile baten baja ordezkatzea eskaini zidaten.

Zer gustatzen zaizu Bilbo eta Euskal Herriari buruz?

Sareak ehuntzeko eta zure antzeko jendea aurkitzeko erraztasuna, eta proiektu edo motibazioetan lagun zaitzaten. Lana aurkitu izana ere gustatzen zait, lagunak egin ditut, bertoko bikotea dut…

Zer duzu faltan?

Familia eta lagunak. Agian eguzki pixka bat gehiago eskalatzeko, baina egia esan ez du espero nuen besteko euririk egiten.

Mallorcara itzuli ohi zara?

Bai, orain gutxiago, baina lehen hiru hilean behin joaten nintzen, gutxi gorabehera.

Hemen zaudela, zer gustatzen zaizu egitea?

Furgonetarekin ateratzea. Mallorcan itsasontzi edo hegazkin bat behar duzu horretarako. Hemen askoz errazagoa da mugitzea. Orain ezin dut.

Euskara ikasten ari zara, zer dela-eta?

Mallorcatik nator eta argi daukat bizi zaren tokiko hizkuntza ikasi behar duzula. Bizi zaren tokiarekiko erantzukizuna, enpatia eta errespetua da. Nire helburua jendea ulertzea da, nirekin hitz egiteko euskaldunek hizkuntza aldatu behar ez izateko. Lan kontuengatik ere ondo datorkit, ezinbestekoa iruditzen zait laguntzen ari naizen pertsonak bere hizkuntzan hitz egiteko aukera izatea. Mallorcara bizitzera doan jendeak gauza bera egitea gustatuko litzaidake.

2021eko apirilaren 1ean egindako manifestazioa, Errondoko Auxo Etxearen 4. urteurrenaren egunean eta desalojo eguna jakin berritan.

ERRONDOKO, 4 URTEZ AUZOA BERPIZTEN

Huste arriskuan dago Errondoko Auzo Etxea. Laugarren urteurreneko ospakizun giro betean heldu zen albistea: Eroskik maiatzaren 5erako eskatu zuen espazioaren hustea, poliziaren laguntzarekin. Auzokideak bide guztietatik ari dira Errondokoren aldeko defentsa antolatu eta hustea ekiditen saiatzen.

Testua eta argazkiak: Errondoko Auzo Etxea

Lau urte igaro dira Saniko auzokideok Eroskik 17 urtez abandonatuta utzi zuen espazioa errekuperatu genuenetik. Lau urte hauetan, berreskuratzen diren espazio gehienetan bezala, bidea luzea izan da; eta soberan dago esatea, ez dela erreza izan. Hala ere, bertan egon garen kideon apustua elkarlanaren, saretzearen eta eskaintza kulturalaren aldekoa izan da, antolakuntza politikoa ahalbidetzen duen espazioa oinarri izanda.

Duela gutxi Twitterren irakurri genuen @nahasmen izeneko kontuan Errondoko Auzo Etxea ezin dela ulertu proiektu isolatu moduan, auzoan autogestioaren izenean egin den lana ahaztuta eta Saniko Kultur Etxearen proiektua kontuan hartu gabe. Errondoko San Inazion sortutako kultura politiko eta militantetik jaio da. Urteetan belaunaldi ezberdinek jaso dugun ondorengotza praktikara eramanda lortu dugu Errondokok auzoan lau urte betetzea; desjabetuon espazio bezala, auzotik eta, noski, auzoarentzat.

Aipatutako sare sozialean irakurritako hitzak ekarriz: “Errondoko proiektuak mahaigaineratu du berriz Kultur Etxeko arima, berriz lan eginez erreferentzialtasun espazio baten sorreran, auzoa saretzen eta komunitatea egiten, Bilboko periferiako txoko hau bizigarriago egiten saiatuz”. Eskertzekoa da aktiboki lanean jarraitzen dugunontzat horrelakoak irakurtzea, gogorra baita laugarren urteurrenaren prestaketetan desalojo mehatxua errealitate bihurtzen dela ikustea.

Eroskik duela lau urte zabaldu zuen prozesua-

ren amaitzear dago, maiatzaren 5ean espazioa husteko saiakera egingo du. Horren aurrean, Errondokotik gure postura jakinarazi nahi izan dugu: lau urte hauetan egindako lanean berresten gara; auzoa berpizteko apustu bezala hasi zenak jarrai dezan, Errondoko auzoarentzat!

'Lau urtez auzoa berpizten'

2017ko apirilaren 1ean okupatu zen Errondoko. Konfinamendua zela-eta, hirugarren urteurrena ezin izan genuen kalean ospatu, eta laugarren honetan, osasun-egoera kontuan izanda, lan gogorra egin dugu guztion artean eta era arduratsu batean ospatu ahal izateko. Aste osoko egitaraua aurkeztu genuen, eskaintza kulturalari, tailer politiko eta praktikoei eta Errondokoren egunerokotasunean jarduten duten eragileen paperari garrantzia emanez.

Horrela, apirilaren lehena barnean hartzen zuen astean zehar eskaini genituen hitzaldiak, tailerrak eta arlo ezberdinetako kultura-emanaldiak. Lehenengo egunak formakuntza eta hitzaldietara bideratu genituen, Sukar Horia eta Zirikatzen taldeen parte hartzearekin. Lehenengoak 'Ultraeskuina eta klima aldaketa: proposamen antifaxista ekologismotik' hitzaldia eskaini zuen, eta bigarrenak, berriz, 'Ezagutzek askatuko gaituzte' formakuntza blokearen barnean jorratzen duten elektrizitate tailerra prestatu zuen.

Apirilaren 1ean mobilizazioa abiatu genuen Sarrikoko metro geltokitik. Ohikoa denez, Levante enparantzan bukatu zuen manifestazioak. Indarrak hartzeko eta ospatzeko asmoarekin egindako mobilizazioan, jakin berri genuen notizia salatzeko aukera baliatu genuen: Eroskik desalojo agindua eskatuta zeukan, eta hurrengo egunetan jakingo genuen zein izango zen hustea aurrera eramateko eguna. Egindako irakurketan plazaratu genuen bezala, Errondokoren kontrako eraso hau ezin da ulertu era isolatu batean, gune autogestionatu eta okupatu guztien kontrako mugimendutzat baizik. Aldi berean, jakinarazi genuen ekintza zapaltzaile horrek, desmoralizazio funtzioa bazuela ere, ezin delako ulertu Saniko jarduera militantea Errondoko barik.

Era berean, beharrezkoa ikusi genuen egoeraren erruduna seinalatzea, behin eta berriz errepikatu dugun bezala: Mondragon Kooperatibaren parte den Eroski enpresa milioiduna. Hasieratik, 2017an espazioan sartu ginenetik, desalojo mehatxua pre-

"Lau urte hauetan egindako lanean berresten gara; auzoa berpizteko apustu bezala hasi zenak jarrai dezan, Errondoko auzoarentzat!"

Txepetx Aisialdi Taldea 2021eko inauterietan

"Berehalako helburu hau lortzen ez badugu, argi dugu ezingo dutela inoiz ezabatu Errondokok auzoan egindako lana eta duen esanahia"

sente egon da, enpresa pribatu horrek lehen identifikatutako bi kideren kontrako salaketa jarri baitzuen. Lau urte geroago, etorriko denaren zain, guk antolakuntzaren eta elkarbabesaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu.

Urteurreneko azkenengo egunetan Errondokoko eragileen, musikaren eta jai-giroaren txanda heldu zen. Apirilaren 2an estreinatu berri dugun rokodromoa ireki genuen, Auzo Etxean sortu den eskalada taldearen eskutik. Arratsaldeko 17:00etan Jam taldeak antolatutako freestyle eta jam sessionari hasiera eman genion.

Apirilaren 10ean Itziar Morenok 10 urte bete zituen kartzelan, eta urteurrenaren azken-aurreko egunean aukera ezin hobea izan genuen auzoagatik egin duen guztia eskertzeko. Gainera, Itziar Rennesen dagoenez preso, bere ingurukoek laguntza behar dute Frantziar estatuan sartzeko eskatzen duten PCR proba ordaintzeko. Horrela, apirilaren 3an Itziar Morenoren eguna ospatu genuen. Goizetik gure espazioan jarduten duen boxeo taldeak eskola magistral bat antolatu zuen. Bazkaldu baino lehen, Errondokon ikusgai egon diren Itziarren artelanen erakusketa gidatua eskaini zen eta bukatzeko, Esna eta Zoroen Kluba taldeen txanda heldu zen egunari amaiera emanez. Bukatzeko, igandean Errondoko kalera atera genuen Irola Irratiaren laguntzarekin, gure ibilbideari buruzko zuzeneko irratsaioa eskaintzearekin bat. Sarriko parkean antolatu genuen egitarau berezia, Errondoko auzoko eremu ezberdinetara eramateko.

Erronroko rokodromoa

Hori lortzeko, artista ezberdinen laguntza izan genuen.

Zer daukagu ospatzeko?
Egun hauetako berriak ez dira onenak, baina lau urte hauetan ospatzeko 11 arrazoi bildu ditugu. Hasteko, lau urte bete ditugula auzoa berpiztuz lelopean, ideia horri fidelak izaten saiatzen eta auzotik sortutako proiektu honen ardatza beti auzoa izan dadin bermatzen. Lau urte denbora asko da, eta ez dugu errepikakorrak izan nahi, baina bidea erraza izan ez den arren, begirada bat atzera botaz gero, inoiz Errondokoko asanbladaren parte izan garenok harro sentitzeko arrazoiak ditugu.

Ospatzeko izan ditugu urte hauetan San Inazioko jaietan gehitu ditugun ekintzak, ekarpenak eta egindako lana. Zerotik hasita eta lau hilabeteko esperientziarekin, 2017ko jaietan Jai Batzordearekin eta San Inazioko kuadrillekin batera jaiak aurrera atera genituen. Eta horrela izan da 2018an eta 2019an ere, jai herrikoien aldeko eredua sustatuz.

2020a heldu zen, eta denok dakigunez, ezinezkoa izan zen urte horretan auzoko jaiak ospatzea, baina gaur egun, berriz begirada atzera botaz, badaukagu zerbait ospatzeko. Ospatzeko daukagu konfinamendua heldu zenean eta neurri murriztaileak inposatu zizkigutenean, azpiegitura handirik gabe eta biltzeko aukerarik gabe, auzoa saretu genuela elkarbabes sare baten bidez. Bertan unera arte Errondokorekin loturarik ez zuten pertsonek parte hartu zuten, eta Errondokon ikusi zuten laguntza emateko eta jasotzeko bidea.

Ospatzeko daukagu San Inazioko militantziaren belaunaldien arteko batasuna sustatzeko aukera, Errondokorik gabe ezinezkoa izango zena. Horrelako proiektuetan askotan ahazten zaigu zeinen onuragarria den auzokideak ezagutzea eta autogestioaren izenean egindako lanaren bidez harremanak sendotzea.

Kaleetan ikusiko dugu elkar
Hau idazten bukatzean, konturatu gara agur itxura hartu duela testuak, baina maiatzaren 5a heldu baino lehen beste mezu bat zabaldu nahiko genuke: espero dugu gutxi barru ospatu ahal izatea Errondokok Sanin oraindik bere espazio fisikoa mantentzen duela, erresistentzia izango delako indarraren monopolioa duten horiei zuzenduko diegun erantzuna.

Baina, berehalako helburu hau lortzen ez badugu, argi dugu ezingo dutela inoiz ezabatu Errondokok auzoan egindako lana eta duen esanahia, urteetan lortutako erreferentzialtasuna mantenduko dela eta lanean gauden militanteon indarrek bizirik jarraituko dutela. Berriz ere Itziar Moreno orri hauetara ekarriz: “Ereindako hazitik, uzta jaso”.

Irakurle, ez dakigu noiz helduko den PREST! hau zure eskuetara, baina espero dugu maiatzaren 2an eta 5ean kalean elkar ikustea, eta egun horiek pasatu badira, eskerrik asko emandako babes guztiagatik.

INGELESA ESKOLAN COVID GARAIAN

Testua eta argazkiak:
Leire Basterretxea eta Ianire Zamalloa (San Inazio eskolako ingeles mintegia)

Argi geratu jaku, halan espero daigun behintzat, bizitzeak, munduak, unibersoak… sekulako eskarmentua emon deuskula guztioi pandemia honetan. Gizartean sarritan pasetan dan lez, lehentasunen berrikuspenak susto itzel baten ostean izaten dira.

Hezkuntza munduan be, eskoletan, gaur egungo lehenengo helburua gure ikasle, irakasle eta langile guztien osasuna jagotea eta babestea bihurtu da. Horretarako, eskola barruko funtzionamendu guztia, bai enpresa lez zein irakaskuntza aldetik, hankaz gora ipini eta birmoldatu egin behar izan da.

Talde "burbuilea" mantendu, distantziak errespetau, maskarak erabilten dirala ziurtatu, higienea jagon, gelako lana eta telelana aldi berean egin noizean behin… Prebentzino neurri honeek umeen egunerokotasunean sartu behar izan doguz, eta honek ardurak gehitu eta denporea murriztu deusku irakasgai desbardinetako saio bakotxean.

Ingelesari jagokonez, ez da gauza erraza, COVID 19a dala eta, klaseak era erakargarri eta ludiko batean emotea. Halan da be, San Inazio eskolan ikasleak metodologia aktibo batean murgiltzen saiatzen gabiz; eurak diralako euren ikaskuntza prozesuaren protagonistak. Kontuan hartuta maskarearen erabilereak ahozko ulermena zenbat eragozten dauen, berba bako komunikazinoak eta gorputz-espresinoak inoizko garrantzirik handiena hartu dabe egun honeetan.

Ikasturte honetan eskolara bueltau diran umeek igazko konfinamendu luzea sufridu eben. Hori dala eta, emozinoen ezagutzeari eta adierazpenari garrantzi handia emoten deutsegu ingeleseko klaseetan be.

Batzuetan, umeek COVIDaren inguruan daukiezan kezkak ingeleseko saioetan be planteatzen dabez. Batak eta besteak daukie zeozer kontetako: eurek bizitako esperientziak, kalean entzundako anekdotak edota telebistako barriak.

Beste batzuetan, suertatzen da jolastorduko txarto-ulertze eta halakoak konpondu behar izatea, edota maskareak eragi-

ten deutsen deserotasuna baretu behar izatea. Gorputz adierazpena eta emozinoak lantzea ezinbestekoa dala deritxogu. Urduritasun horrek, kolokan egote horrek, batzuetan klasea beste era batera enfokatzera bideratzen gaitu.

Eurakaz berba eginez eta emozinoak adierazoteko mimo dinamikak eta rol play teknikak, besteak beste, erabiliz, emozinoen hausnarketea egiten dogu eta gorputzean non sentiduten dabezan identifikatzen jakin deien saiatzen gara.

Amaitzeko, musika lasai batez lagunduta eta arnasketak eginez emozinoak baretzea edo, gitxienez, intensidade mailea bajatzea lortzen da. Ikasleak lasai eta ziur sentidu ahal dirala transmititzea da garrantzitsuena. Eskolea leku babestu eta seguru bat dala erakutsi.

Bestalde, ikasleek mintza praktikak, abestu, jolastu, antzerkiak prestau, antzeztu eta eskulanak be egiten dabez, barneratu behar

dabezan edukiak eta lortu behar dabezan helburuak lortzen laguntzeko.

Horrezaz gan, IKTak be funtsezko lan tresna bihurtu dira. Horreei esker, umeei ingeles irakasgaia erakargarriagoa egiten jake. Jolas eta ipuin interaktiboak, bideoak eta bestelako errekursoak erabilten doguz ulermena eta adierazpena garatu ahal izateko. Konfinamendu garaian be, IKTei esker eta gurasoen ezinbesteko laguntasunagaz , klaseak aurrera eroan ahal izan doguz.

Ingeleseko metodologietan bustita dagozan argitaletxeek be egokitzapen izugarria egin behar izan dabe eskoletara zein familietara, beharrizanoi erantzun bat emon ahal izateko, eta “on line” errekurso iturri ugari sortu dira, zorionez. Horreei esker, konfinamendu egunetan edota telelana egin behar dan momentuetan eskolako lana etxeetan aurrera eroan ahal izatea askoz errazagoa egiten jaku umeei, irakasleei zein familiei.



Mundu eleanitz honetan badirudi COVIDa “hizkuntza” barri bat dala eta ezinezkoa egiten jaku, batzuetan, beste ezeri buruz berba egitea. Saiatu gaitezan danon artean hainbat arinen COVID dalako hori desagerrarazoten. San Inazio eskolan euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez berba egitea gustetan jaku. Eta, amaitzeko, danok batera, alkarregaz COVIDaren kontra, ingelesez esaten deutsuegu…

YES, WE CAN!

Berriz auzoa eta Artxandako gainaldea 1761eko mapa batean.

BERRIZKO ERMITA 1696AN

Berriz gaineko ermitari buruz behin baino gehiagotan egin dugu berba txoko honetan. Oraingoan, albiste pare bat dakargu. XVII. mendearen amaierako kontuak dira. Gutxika-gutxika, haren historia osatzen joango gara.

Testua: Hektor Ortega

Behin baino gehiagotan (PREST!eko 25, 27 eta 45. zenbakietan) agertu da txoko honetan Berrizko ermita. Gaur egun Axe-Onak baserria dagoen alderdian zegoen, Elorriaga edo Banderas mendiko tontorretik hur. XV. mendean ermitauentzako egoitza izan zen, agustindarren esku komentu txikia bilakatu zen eta hauek Bilbo ondora (gaur egun Bilboko udaletxea dagoen orubera) aldatu zirenean (XVI. mendean), ermita huts lez gelditu zen. Lehenengo gerra karlistaren gatazketan zeharo txikitu zuten. Gaur ez dago arrastorik ere. San Bartolome eta San Antolin santuei eskainita zegoenez santu bi horien egunetan (abuztuaren 24an eta irailaren 2an) erromeria jendetsuak egiten zituzten.

Ermitak serora edo freira zeukan 1671n, Madalena Iturriaga hain zuzen (PREST! 121). Hogeita bost urte geroagokoa da dakargun lehenengo albistea. Izan ere, 1696ean San Agustin komentuak Berrizko ermita konpontzeko dirua eskatu zion Deustuko Udalari, fraideek sosik ez zeukatela argudiatuta. Ekainaren 12an, domekarekin, ohiturari jarraituz, meza nagusia amaituta, deustuar gizonak, bat etxeko, elizako kanposantuan batu ziren udal batzarrean herriko gaien gaineko erabakiak hartzeko. Berrizko ermita, herritarren iritziz, lotsagarri zegoen. Hortaz, bat zetozen fraideekin: konpondu beharra zegoen.

Berez hura ez zen deustuarren kontua, ermita hori Bilboko Udalaren babespean zegoelako, baina eurek ere erabiltzen zuten “todos los años, así para las letanías como para otras

rogativas que se ofrezian". Izan ere, maiatzeko gurutzearekin egin ohi zuten soloen eta arloen bedeinkazioa eta ekitaldi hori Deustuan Berriz mendiko ermitatik hurrean egiten zuten herriko abadeek, deustuar guztiak atzean zeukatela, tontorreraino prozesioan eta gurutze handi batekin igo eta gero. Handik, elizateko lekurik altuenetik alegia, egiten zuten erregutea eta Deustuko arlo guztien bedeinkazioa.

Beraz, Deustuko Udalak 200 erreal ematea erabaki zuten (ez zen diru askorik, egia esan) eta, gainera, baimena eman zuten herritar batzuk (pertsona bat auzoko) ermitaren konponketarako limosna batu zezaten.

Erromeriak

Hiru hilabete geroago, berriro azaldu zen ermita Deustuko udal batzarrean, beste arrazoi bat tarteko eta zeharka bada ere. Berez, Berrizko landa zen eztabaidagai. Sondika eta Deustuaren arteko muga-mugan zegoen eta horrek zazpi kimera isiotu zituen herri bien artean. Beraz, mugarriak jartzea erabaki zuten, arazoak saihesteko eta nork bere barrutia argi eta garbi zedarritzeko.

Mugarriak paratu, paratuko zituzten, baina arazoa berriro agertu zen urte batzuk geroago, adibidez 1764an. Orduan auzia piztu zen eta lekukoek deklaratu zuten zelan egiten zituzten erromeriak Berrizko landan San Bartolome eta San Agustin egunetan. Eta herrietako fielak (alkateak) han egoten ziren, txuzoa eskuetan, nork bere barrutiko ordena zaintzen eta dantzak eta txosnak gobernatzen. Baina 1696ko udal batzar horretan ere erromeriak aipatu zituzten: "el campo y arbolar de Berriz a donde suele concurrir la gente en rromeria por los días de San Bartolome y San Antolin en cada un año después de acavados los dibinos oficios". Alegia, susmatzen genuen bezala, erromeria ez zen sortu berria 1764an, 1696an ere berdin-berdin egiten zutelako Berrizko landan, hala San Bartolome egunez nola San Antolin egunez, behin elizkizunak amaitu eta gero. Eta pentsatzekoa da, urte hori baino lehen ere. Apurka-apurka, atzeraka goaz.



Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

artikulua
Lan-gatazka

DEUSTUKO IKASTOLAKO JANTOKIKO 28 LANGILEAK KALERATZE ARRISKUAN EGON DIRA

Osasun sailak Deustuko Ikastolako jantokiari emandako ultimatumaren ondorioz, bertako 28 langileak eta zerbitzua erabiltzen duten 374 umeak kaleratze arriskuan egon dira azken aste hauetan.

Testua eta argazkiak: Nerea Cubillo Urkizu

Gaur egun bi era daude EAEn eskola publikoetako jantokiak kudeatzeko. Lehena gestio zuzena da, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duena; bigarrena, berriz, zeharkakoa, Jaurlaritzaren eta eskolako Guraso Elkartearen artean kudeatzen dutena.

Jantokiaren proiektua sortu zenetik zeharkako gestioa izan da ikastolako jangelan indarrean egon dena, hau da, bertako erabiltzaileek materialaren gastuei aurre egin behar diete, janari guztia bertako sukaldean egiten da eta langileen hitzarmena gestio zuzenekoarekin alderatuta eskasagoa eta prekarioagoa ere bada.

Osasun Sailak denbora darama jangelan zein sukaldean egin beharreko premiazko berrikuntzak eskatzen. Langileen arabera, “aspaldiko kontua da” eta berrikuntza horien kudeaketa “esku batetik bestera ibili da Hezkuntza Sailaren eta Bilboko Udalaren artean”. Osasun sailak ultimatuma eman duen arte: Deustuko Ikastolako sukaldea eraberritzen ez badute ezingo dute jantokiarekin jarraitu.

Gainera, azken urte honetan jangelako erabiltzaileen kopurua erdira murriztu da pandemiaren eta beste arrazoi batzuen ondorioz. Honek Guraso Elkartearen diru-sarrerak murriztea ekarri du. Adibidez, DBHko ikasleen ordutegia eguerdian amaitzen da eta horren ondorioz “ikasle asko etxera doaz bazkaltzera”.

Egoerari aurre egiteko asmoz, bertako langileek eta LAB sindikatuak Eusko Jaurlaritzari eskatu diote hemendik aurrera jangelaren kudeaketaz arduratzeko, umeak zerbitzu hori gabe geratu ez daitezen eta, noski, 28 langileen lanpostuak mantendu daitezen. Egoera larria izan da azken aste hauetan eta salatzeko langileek eta gurasoek hainbat mobilizazio egin dituzte Eusko Jaurlaritzako Bilboko egoitzaren atarian eta auzoko kaleetan zehar.

Artikulu hau amaitzen ari garen bitartean heldu da Eusko Jaurlaritzaren erabakia. Maiatzaren 1etik aurrera kudeaketaz arduratuko da, jantokia gestio zuzenera igaroz. Hasiera batean albiste ona dirudien arren, aurrerago ikusi beharko dugu langileen baldintzak aldatu diren eta lanpostu guztiak mantendu diren.

HAMAR URTE KARTZELAN

Itziar Morenok hamarkada bete du espetxeratuta. Lehendik zaila eta garestia bazen auzokidea bisitatzea, Frantziar Estatuan sartuan sartu ahal izateko PCR negatiboa aurkeztu behar izateak nabarmen garestitu ditu lagun eta senideen bidaia-gastuak. Diruak elkartasuna ez baldintzatzeko San Inazioko auzokideak antolatu dira egoerari konponbide kolektibo bat eman asmoz.

Testua eta argazkiak: Itziarren lagunak

Itziar Morenok, auzoko euskal preso politikoak, 10 urte bete ditu kartzelan. Frantziako hainbat espetxetik igaro ondoren -Dijon, Seysses, Fresnes, Floury eta Roanne-, azkeneko urtean Renneseko espetxean dugu.

Urte guzti hauetan zehar bere senide eta lagunok Itziar bisitarik gabe ez geratzeko gure aletxoa jarri izan dugu. Pandemia egoeran egonda, ordea, espero ez genuen traba berri batekin topo egin dugu: Frantziako estatuak mugatik pasatzeko PCR negatiboen emaitzak eskatzen ditu, honek nabarmen garestituz Itziarren bisiten gastuak.

Egoera latz honetan, kapitalismoak ez du lortu elkartasuna oztopatzea eta arazoa ikustarazteko eta batez ere bisiten gastuak arintzeko, babes sare bat sortu da auzoan. Gainkostu hauek arintzeko hainbat ekintza proposatu dituzte, besteak beste, laguntza bonuak jarri dituzte salgai, apirilaren 17an manifestazioa deitu zuten San Inazion eta Errondoko Auzo Etxean Itziarren arte-erakusketa ikusgai izan da martxoaren 19tik apirilaren 19ra bitartean.

"Erasoen grisari, minaren zuribeltzei kolore pintzelkadak adorez ateraz; iluna nekez bai baina, argituz finean"

Itziarrek horrela dio *Nigan kiribildua* izena duen artelanean. Bere ekoizpen artistikoa artibismoaren barne kokatu behar dugu, bere obrak edozein zapalkuntza eta bortxakeria salatzeko helburua duelako ikuslea probokatuz eta honen kontzientzian eraginez. Artelanek, orokorrean emakumea dute ardatz, honek pairatzen dituen biolentzia ezberdinak (sexualitatea, indarkeria sexista, estereotipoak…) ikusaraziz. Halere, bestelako gaiak ere lantzen ditu, hala nola, immigrazioa eta errefuxiatuen egoera, Palestinan edota Euskal Herrian bizi dugun gatazka… Injustizia sozial hauen aurrean, bere jarrera zein den argi uzten du lan guztietan: borroka eta protesta.
Har dezagun guk ere bide hau eta saiatu gaitezen arazo sozialen aurrean irtenbide posibleak bilatzen: hiritarron erantzukizuna, feminismoa, pertsonen arteko elkartasuna… ez gara isilik ez geldirik geratuko patriarkalismoaren, estatuen neurri errepresiboen zein kapitalismoak eragiten dituen giza eskubideen urraketen aurrean.

Preso bat ere ez dadila bisitarik gabe geratu!
Herriak maite zaituzte!

XABIER BAÑUELOS GANUZArekin

Kazetaria

“Jakin-minez bidaiatzen dut,

Motz geratu zaigu Xabier Bañuelosekin hizketaldia. Zaila izan da kontatzeko duen guztia lau orritan laburtzea. Kazetaritza, bidaiak eta arlo soziala uztartzen ditu egiten dituen gauza guztietan. Boluntariotzaren inguruan lan egiten jarraitzen badu ere, azken boladan bidaietan zentratu da batik bat. Bere ibilbide luzeari buruz aritu gara elkarrizketa lasai eta atsegin batean.

Testua: Jone Gartzia Gerra
Argazkiak: Ecuador Etxea

ezagutzeko eta ulertzeko”

Gauza asko egiten duzu. Zein da zure ogibidea?
Galdera hori egiten didatenean beti erantzuten dut ni kazetaria naizela. Hori da nire bokazioa, eta horretarako ikasi nuen. Mamia duten istorioak kontatzea gustatzen zait, inguruko errealitateak erakustea. 15 urte nituenetik argi izan dut munduari era honetan egin nahi diodala so, ikusten eta kontatzen duen *voyeur*-aren ikuspegitik, baina konpromiso sozialarekin.

Zer ibilbide egin duzu?
Gizarte-lanetan hasi nintzen. Soziologia ikasten hasi nintzen gero kazetaritza egiteko asmoz. Lehen lana Agintzari elkartean aurkitu nuen, proiektua hasten ari zenean. Animatzaile komunitarioa nintzen 1. barrutian, haur eta gazteen bazterketa prebenitzeko proiektu bat genuen. Parte-hartze kolektiboa bultzatzen genuen, jendea antolatzera animatuz. Erakundearen komunikazio arduraduna ere banintzen. Ostean, hainbat aldizkaritan aritu nintzen lanean: ‘Bizia’, Euskal Comunicaciónek argitaratzen zuena, Aldundiaren ‘Bizkaia maitea’, Bizkaiko Guraso Elkartearena... Jarraian, ‘Bizia’ telebista-saioa zuzendu nuen, Euskal Comunicaciónena hau ere. Han asko ikasi nuen, baina ikusi nuen ez zaidala batere gustatzen telebistaren atzean dagoen botere eta diru lehia.

Eta ondoren?
Euskal Comunicación utzi nuenean bi erabaki hartu nituen: bata, ez nuela oposaketarik egingo, nahiago nuelako egonkortasun ekonomikorik ez izan, baina ordutegi eta opor askeagoak eduki; eta, bestea, ez nuela enpresa pribatuan lan egin nahi, nahiago nuelako nekien apurra gizarte munduari eman.

Orduan, zein da formula?
‘Bizia’ utzi eta Ameriketara joan nintzen sei hilabetez. Itzuli nintzenean Erreka plataforma ekologistan hasi nintzen liberatu. Akordio batera iritsi nintzen haiekin, opor gehiago eta lan egiteko askatasuna izateko, baina lau hilabetez Mexikora joateko utzi nuen eta itzuli nintzenean EDE fundazioan hasi nintzen lanean. Hortik sortu zen Bolunta eta komunikazioa eramatea eskaini zidaten. 13 urte eman nituen, haiekin akordio batera iritsi nintzelako bidaiatu ahal izateko eta malgutasun handia izateko, baina inoiz ez naiz gauza bakarrean lanean egon, ordurako Bilbao, El Mundo eta El Correo egunkariekin kolaborazioak egiten nituen.

Nola hasi zinen bidaia-gidari?
Zenbait hedabidetan bidaia-erreportaje batzuk eginak nituen. Egun batean, AñosLuz bidaia agentziako lagun batek deitu zidan Tanzaniara gidari joatea eskaintzeko. Norvegian nengoen, lagun baten etxean, luze geratzeko asmoz. Ez nuen Tanzania

“Bidaia-gidari izatea oso lan polita da, baina gogorra da, oso gutxitan doalako dena ondo eta gauzak asko okertu daitezke”

▷ ▷ SAKONEAN

"Serengetiko lehoien izenak ere ezagutzen ditut"

Baduzu leku gogokorik?
Gauza onak esango nizkizuke egon naizen herrialde guztiei buruz, baina lotura emozionalengatik leku batzuk besteak gehiago gustatzen zaizkit. Argentina oso berezia da niretzat, bertan bizi izan naizelako, lagun onak egin ditudalako eta oso ondo pasatu dudalako, eta horretaz gain, zoragarria delako. Denetarik dauka, Sahara bezalako basamortu bat baino ez zaio falta! Ekuador ere asko gustatzen zait, nire lehen bidaia handia izan zelako. Maitasun handiz gogoratzen dut. Latinoamerika asko gustatzen zait, paisaia izugarriak dituelako, jende jatorra duelako eta hizkuntzak asko errazten duelako.

Lotura berezirik al duzu tokiren batekin?
14 aldiz izan naiz Tanzanian, Serengetiko lehoien izenak ere ezagutzen ditut. Behin taberna batean nengoen lagunekin eta telebistan Serengetiko lehoiei buruzko dokumental bat ematen ari ziren, eta oihu egin nuen: "kontxo, lehoi hori nik ezagutzen dut!". Oso lurraldekoiak dira, ondorioz, paisaia ezagutzen baduzu eta lehoiari belarrian zatitxo bat falta bazaio, badakizu zein den.

Itzuliko ez zinatekeen lekurik dago?
Egiptora ez itzultzeko tentazioa izan nuen, bertan jasan nuen jazarpenagatik. Pazientzia handia daukat, baina agortu egin zitzaidan. Hala ere, berehala aldatu nuen iritzia. Asko gustatzen zait Egipto, bere iraganagatik, aztarna arkeologikoengatik, giroagatik… ezagutzen eta ez nuen inoiz bidaia gidari lanik egin, baina baietz esan nion eta bost egunetan Arushan (Tanzania) nengoen. Hortik aurrera, urtero hasi nintzen Años-Luzekin kolaboratzen.

Zenbat herrialdetan egon zara gidari?
Jordania, Siria, Maroko, Vietnam, Kanbodia, Islandia, Mexiko, Guatemala, Belize, Honduras, Namibia, Botswana... Kasu guztietan leku horretara joaten nintzen lehen aldia zen, Marokoko kasua izan ezik. Oro har, nahiko ondo joan izan zait beti.

Bidaiatzea ogibide bihurtzeak erakargarri dirudi oso.
Bidaia-gidari izatea oso lan polita da, niri asko gustatzen zait, baina gogorra da, oso gutxitan doalako dena ondo eta gauzak asko okertu daitezkeelako. Gidari zarenean lanean ari zara, ez bidaiatzen. Osagai erromantikoa du eta jendearekin kontaktua oso polita da, baina badu bere zailtasuna ere.

Pasadizo asko izango dituzu kontatzeko.
Boluntan lanean nengoela, bidaia-gidari nintzen, eta askotan kanpotik egiten nuen lan. Denetarik egin dut lana uztartzeko. Ngorongorotik (Tanzania) telefonoa hartu eta Radio Euskadin boluntariotzari buruzko elkarrizketak egin ditut. Behin, suge haztegi batean nengoen Arusha ondoan, suge bat eskuan nuen eta Loreto Larumbek deitu zidan irratian elkarrizketa bat egiteko. Oso gauza dibertigarriak gertatu zaizkit.

Gaur egun, zure kontura egiten duzu lan?
Krisia etorri zen, nire Boluntako lana amaitu zen eta ordutik freelance naiz. Gizartegaietan laguntzen dut oraindik, baina azken urteotan bidaietan egin dut lan. Kooperazio-bidaiak egiten ditut hainbat elkarterekin, beste herrialde batzuetako errealitatea ezagutarazteko. Geologia ikastaro baterako 20 eguneko bidaiak ere prestatzen ditut eta orain Euskal Prospekzio Taldearekin ari naiz Gerra Zibileko aztarnak bilatzeko egiten dituzten ibilbideetan laguntzen. 'Zazpi haizetara' eta Garako

‘7k’ aldizkariekin, National Geographicekin, Radio Vitoriako *Aventureros* eta Radio Euskadiko *Sobre el terreno* irratsaioekin ere kolaborazioak egiten ditut.

Gidari lanetan ere jarraitzen duzu?
Bai, baina beste era batean. Bidaia gutxiago egiten ditut eta orain nik proposatzen ditut. Asko gustatzen zaizkit bidaia tematikoak, antropologiari, historiari, musikari edo zinemari buruzkoak, esaterako. Azkenaldian, Italiako iparraldean opera-ibilbide bat antolatzeko ideia daukat bueltaka. Donizzeti, Vivaldi eta Verdi aitzakia hartuta, Bergamo, Milan, Venezia, Padua eta Veronara joan nahi dut.

Nola prestatzen dituzu bidaiak?
Asko gozatzen dut prestatzen, bidaiatzen eta kontatzen, hiru aldiz bidaiatzearen parekoa da. Bidaiak prestatzeko, joaten naizen herrialdeetako idazleen lanak irakurtzen ditut. Literatura irakurtzen dut, ez bidaialiburuak, eta gai sozial eta politikoen inguruan asko baizik irakurtzen dut. Interneten, liburuetan eta gidetan bilatzen dut informazioa, eta lagunei aholkuak ere eskatzen dizkiet. Ibilbideak modu irekian diseinatzen ditut, aurreikusitakoa oso gutxitan betetzen dugulako.

Patxada behar da horretarako.
Denboraz estu-estu bidaiatuz gero, ezin duzu erabakirik hartu. Denborak nire partez erabakitzea gustatzen zait, bidean jendea aurkitzea eta nire ibilbidea aldatzea.

Zein helbururekin bidaiatzen duzu?
Jakin-minez, ezagutzeko eta ulertzeko. Ez naiz soilik bidaiatzen leku enblematikoak bisitatzeko eta paisaia politak ikusteko, nik jendearekin egoteko bidaiatzen dut. Horregatik gustatzen zait trenez bidaiatzea eta oinez ibiltzea, kontaktu zuzenagoa lortzen delako horrela.

Ez da oso ohikoa horrela bidaiatzea.
Nik ulertzen dut hilabeteko oporraldia bakarrik duena denbora ahalik eta gehien aprobetxatzeko ahalik eta leku gehienetara joaten saiatuko dela, baina ez nator bat. Ez zait gustatzen estresarekin bidaiatzea. Niri, adibidez, helmugak errepikatzea gustatzen zait. Egia da asko bidaiatzen dudala eta hori egin dezakedala, baina ez daude bi bidaia berdin. Leku batera itzultzen naizen bakoitzean gauza berriak aurkitzen ditut.

Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu?
Gaztelania eta euskara, eta ingelesez moldatzen naiz, besterik ez. Egia esan, ingelesarekin eta irribarrearekin nahikoa izan dut leku guztietan. Tanzanian, adibidez, denek hitz egiten dute swahilia, ingelesa eta beren hizkuntza propioa, eta, ziur asko, euren inguruko etnietako bi hizkuntzatan moldatzen dira. Gainera, swahiliaren fonetikak gaztelaniaren eta euskararen antz handia duenez, guk bezala hitz egiten dute ingelesez.

Dagoeneko txerto asko izango dituzu jarrita.
Bai, behar diren guztiak jartzen ditut, eta herrialde batzuetan nahitaezko txertoak daude, sukar horiarena kasu. Bidaietan malaria, dengea, hepatitisa eta hainbat gernu-infekzio pasatu ditut. Luzaro joan naizenetan soilik ez dut profilaxirik hartu, lau hilabetez leku batean egon behar baduzu albo-ondorioak gogorrak izan daitezkeelako. Horregatik hartu nuen malaria Tanzanian. Gainera, falciparuma hartu nuen, gogorrena, baina sendatzen duen bakarra. Haitin dengea harrapatu nuen, ez baitago aurkako txertorik. Marokon hepatitisa harrapatu nuen egoera txarrean zegoen haragia jateagatik.

Amaitzeko, gomendatuko zeniguke inguruko lekurik bisitatzeko?
Gauza interesgarriak ikusteko ez dago oso urrutira joan behar. Adibidez, orain gutxi Entziako mendilerroan egon naiz eta oso ederra da: Legaireko menhirrak, Zalanportilloko pagadia... Urdaibain arrano arrantzalea haztea lortu berri dute, oso leku gutxitan dago. Nerbioi ibaiaren jauzia, Leze leizea… leku izugarriak dira. Duela gutxi Portilla eta Lanos inguruan egon nintzen, Arabako hegoaldean, Nafarroako Erresuma zaharrean, eta Erdi Aroko aztarnak izugarriak dira.

“Trenez bidaiatzea eta oinez ibiltzea gustatzen zait, bertako jendearekin kontaktu zuzenagoa lortzen delako horrela”

JENDARTEA

Gazte bat hil da kanalean itota

Apirilaren 8an 22 urteko gazte bat hil zen Deustuko kanalean, San Inazion, poliziarengandik ihes egiten ari zela. Goizaldean gertatu zen ezbeharra, 04:00ak aldera. Poliziaren arabera, gaztea Zarandoa etorbideko kotxe bat indarrez irekitzen ari zen. Ihes egiten saiatzerakoan, bere burua uretara bota omen zuen eta korronteak eraman zuen. Goizaldeko 06:00etan atera zuten gorpua kanaletik. San Inazioko auzokide talde batek elkarretaratzea deitu zuen hurrengo egunean heriotza salatzeko. 2021ean Bilbon "miseriak kondenatu eta erail duen hirugarren pertsona" dela gogorarazi zuten. Era berean, sare sozialetan irakurritako mezu iraingarriak deitoratu zituzten, "egoeraren errudunak seinalatzea eta biktimen kriminalizazio interesatua eta diskurtso klasista eta arrazistari aurre egitea ezinbestekoa" dela azpimarratzearekin batera.

EUSKARA

Kutxa Bira Deustura etorriko da

Apirilaren 30ean helduko da Deustura Euskal Herria eta diaspora zeharkatzen ari den kutxa. Ipar eta Hego Euskal Herria elkar hurbiltzea xede duen Iparra-Hegoa elkarteak jarri du abian egitasmoa. Osasun egoera dela-eta, aurten ezingo dute Seguran egin ohi duten jaialdia antolatu eta hutsunerik ez uzteko *Bizi gira… kutxa bira!* dinamika jarri dute martxan. Argentinatik abiatu zen kutxa martxoaren 20an. Geldiunea egiten duen herri bakoitzean mezu bat sartzen dute barruan, Euskal Herriarekin lotutako amets bat irudikatzen duena. Deustuk apirilaren 30ean jasoko du kutxa Euskalduna zubipean Berbaizu Euskara Elkartearen eskutik. Dantzariak, txistulariak eta bertsolariak egongo dira eta kalejira girotua egingo dute Done Petri plazaraino. Bertan ekitaldia egingo dute Deustuko mezua irakurtzeko.

EUSKARAZ *bizi guran....*
DEUSTUN *kutxa biran!*

APIRILAK 30, ostirala

20:00ean Euskaldunatik kalejira

20:30ean Done Petrin ekitaldia:
bertsoak, dantzak eta mezua

ARTEA

Zaloa Ipiñaren obra baten irudia markesinetan

Zaloa Ipiña artista deustuarraren 'Irudikeriak' eskulturaren irudia Bilbobuseko zenbait markesinatan ikus daiteke. Moving Artists ekimenak sortutako eta Bilboko Udalak finantzatutako 'Arte Non-Nahi' deialdiaren barne dago. Deialdiaren helburua gune publikoan artea erakustea eta saltzea da. Guztira 40 artistaren lana eraman dute Bilboko kaleetara 15 egunez. Artista hauen 120 pieza salgai jarri dira maiatzaren 15era bitarte www.movingartists.org webgunean.

Deustuko eta San Inazioko hainbat preso hurbildu dituzte

Unai Fano 2020ko irailaren 18an lekualdatu zuten Soriako espetxetik Basaurikora. Urtarrilaren 15ean hirugarren gradua onartu zioten. Abenduan Juan Carlos Iglesias mugitu zuten Alicante III presondegitik (Alacant, 750 km) Dueñasekora (Palentzia, 310 km). Bertara eraman zuten Jon Mirena San Pedro deustuarra apirilaren 9an Herrera de la Manchako presondegitik (Ciudad Real, 640 km). Biak igaro dituzte bigarren gradura. Apirilaren 12an Ibai Behobide San Inazioko auzokidea Puerto III espetxetik (Kadiz, 480 km) El Duesokora (Kantabria, 170 km) eraman zuten. Era berean, aipatu behar da iragan apirilaren 10ean Itziar Morenok 10 urte bete zituela kartzelan, denak Frantziar estatuko espetxeetan. Egun Rennesen dago preso (800 km).

Apirilaren 17an San Inazion egindako manifestazioa

Urtea: 1976

Txema Luzuriaga

Trinitarioen komentua

Trinitarioen komentua eraisteko unea ikusten dugu argazki honetan. Komentua Deustun zegoen, Rafaela Ybarra kalean (Tigrearen parean zegoen), eta argazkian Blas de Otero kalea ikusten da goian. Elizaren goiko aldean oraindik ere Ama Birjinaren eskultura bat dago, Bilbon 1893an jaio eta Areetan (Getxo) 1965eko abenduaren 19an hil zen Juan Gurayak egina. Goyo Arrabalek utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfonoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer deritzozu Eurocopa Bilbon ez antolatzeari?

Asier
San Inazio

Bikain, horrela ez dira ultrak eta turismo mota hori etorriko eta Espainiako selekzioak ez du Euskal Herrian jokatuko. Eurocopak bilbotarroi onurak ekarriko zizkigula saldu nahi izan digute, baina ez da horrela, onurak hotelen jabeentzako eta lanpostu prekarioak sortuko zituztenentzako baino ez ziren izango.

Maribel
Deustu

Niri berdin dit, baina Euskal selekzioak jokatzerik ez duen bitartean hobe hemendik urrun egiten badute.

Iker
Irura

Osasun egoera ez da horrelako ekitaldiak antolatzeko onena. Gainera, Espainiako selekzioa ekartzea arrotza izango zen, guri aurpegira barre egitea bezala.

Olatz
Deustu

Berri ona da. Horrelako ekitaldiek ez dute lekurik Bilbon, Covidarekin zein ez.

Lide
Aretxabaleta-Deustu

Uste dut Bilboko herri mugimenduak zerbait lortu duela, eta pozten naiz. Eurocoparen onurak klase batentzat bakarrik izango ziren, gainerakoontzat kaltea baino ez zuen ekarriko.

Jon Ander
Azkoiti-Deustu

Oso ondo. Ez dut uste Eurocoparen ondorioak Bilbok bizi behar dituenik. Pena da Sevillan bai biziko dituztela.

>> ARRAUNA

GARAIPEN BIKAINAK 40 URTEAK OSPATZEKO

Apirilaren 14an lau hamarkada bete ditu Deustuko Arraun Taldeak. 1981ean sortu zenetik, pixkanaka-pixkanaka haziz eta gero eta erronka handiagoak betetzen joan da taldea. Zuzendaritza taldeko kidea den Aitor Mojasen arabera, "40 urte eta gero gure garaipen nagusia bizirik jarraitzea da".

Testua: Jone Gartzia Gerra **Argazkia:** Deustuko Arraun Taldea

Ez da marka makala Deustuko Arraun Taldeak lortu duena. Aitor Mojasek azpimarratu nahi izan du "40 urte eta gero gure garaipen nagusia bizirik jarraitzea" dela. Kexu da Bilbon ez dagoelako arraun kulturarik eta jendea "emaitza onak egoten direnean" akordatzen delako taldearekin. "Deustun denbora asko egon gara lan eta lan dominarik eskuratu gabe eta hamar urtetik hona hasi gara uzta jasotzen, bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan, zein umeetan", argitu du.

Azken hamarkadan mugarri handiak jarri dituzte klubaren historian. 2016an nesken trainerua uretaratu zuten, Bizkaiko lehenak. Azken asteetako bateletako emaitza onek erakusten duten bezala, nesken taldearen proiektua "sendotzen" ari da. Horrela uste du Mojasek ere. Beste zedarri garrantzitsu bat 2018an etorri zen, gizonezkoen traineruak play-offak jokatu zituenean. Ez zuten mailaz igotzea lortu, baina gertu ibili ziren. Aitor Mojasek aurreratu digunaren arabera, aurten ere, nesken zein mutilen traineruetan play-offak jokatzea helburua dute.

Nolanahi ere, "40 urte gutxi dira" Mojasen hitzetan, eta segur aski luzea izango den taldearen ibilbidean mugarri gehiago jartzeko aukera izango dute. "Inguruan ditugun arraun taldeekin alderatuta gazteak gara", azpimarratu du. Gainera, Bizkaian hiru traineru dituen talde bakarra direla gogorarazi du: "Mutiletan bi eta nesken ligan beste bat".

Bateletan onenak

Ondo hasi dute arraunlari *tomateroek* 2021eko denboraldia. Neskek bateletan hiru txapelketa nagusiak irabazi dituzte: Bizkaikoa, Euskadikoa eta Espainiakoa. "Bizkaikoa eta Euskadikoa aise irabazi genituen, baina Espainiakoa segundo bakarrarengatik", azaldu digu taldearen zuzendaritzako kideak. Irabaztea ez da inoiz erraza izaten, baina Galiziako eta Kantabriako taldeen maila ikusita, lortutako dominak meritu handiagoa du. "Gure historian irabazi dugun lehenengo Espainiako bandera izan da", gaineratu du. Klubaren 40 urteak ospatzeko modu ederra izan da garaipen sorta. Txapeldunek, gainera, iaz hil zen Ane Aizpuru kideari eskaini zioten Espainiako txapelketako bandera, omenaldi gisa.

Denboraldia hasi besterik ez da egin eta aurki trainerillen eta traineruen txanda helduko da. Aitor Mojasek azaldu duenez, taldearen asmoa "ahalik eta hoberen egotea" da, eta kanporaketetara heltzen ahaleginduko dira, "bai nesketan eta bai mutiletan".

http://sarekada

‘Beti Berdin’ komikia

Asier Gaston komiki egile eta Euskararen Etxeko diseinatzaileak *Beti Berdin* izeneko komikia argitaratu du euskaraz. Euskararen Etxean eta liburutegi publikoetan eskuratu daiteke dohainik. “Begirada umoretsu eta ziniko baten bidez, bizitza eta pandemiari buruzko gogoetak ikusteko aukera izango dugu denboran zehar”, azaldu du egileak.

EIMA – Euskarazko Ikasmaterialen Dokumentazio Zentroa

EIMA katalogoak 2005etik darama euskarazko ikasmaterialak biltzen eta katalogatzen. Askotariko baliabideak kontsultatu eta eskuratu daitezke: testuliburuak, irakas-jardunerako material osagarriak, bideoak, aplikazioak, jolasak, literatura-lanak... Hizkuntza-kalitatea bermatuta duten lanak bilatzeko aukera ematen du, gaur egungoak zein euskal irakaskuntzaren hastapenekoak. Gutxi gorabehera 31.350 erreferentzia ditu etengabe eguneratzen dute. Horietatik 8.450 sarean eskuratu daitezke, gainerakoak egoitzan bertan edo ikastetxera bidaltzeko eskatuz eskuratu daitezke.

‘Hildako bizidunen gaua’ karta jokoa dohainik

Euskaraz, 1-6 pertsona artean jolasteko karta-jokoa da. Lagun talde batek sortu du ‘Space Hulk: Death Angel’ izenekoan oinarrituta. 1984. urtean dago girotua, Manchesterren. Super-ilargidun gau batean sei lagunek hilerri bateko kripta batetik egin behar dute ihes. Elkarlana ezinbestekoa da hildako bizidunak garaitu eta buru-hausteak argitzeko. Karta jokoa dohainik deskargatu daiteke sare sozialetan ‘Hildako bizidunen gaua’ bilatuta. Abestia ere egin dute jokoaren sortzaileek.

>> ARTEA

SOILIK BIZI. ONLYBIBE.

Bere marrazkiak oihalezko poltsetan egiten hasi zenean jaio zen Onlybibe. Proiektu txikia da, bera bakarrik dago, baina urrun heldu dira bere marrazkiak. Zorroak, koadroak eta muralak ere egiten ari da orain. Ilusio handiz kontatu digu Libe Larizgoitiak zer ezkutatzen den Onlybibe izenaren atzean.

Testua eta argazkia: Jone Gartzia Gerra

Libe bere gelako estudioan lanean

Betidanik izan da marrazki zalea Libe Larizgoitia ibarrekolandatarra. Arte Batxilergoa ikasi zuenean egun osoa ematen zuen marrazten, baina Unibertsitatean Haur Hezkuntzan matrikulatu eta kontraste handia nabaritu zuen: marrazteari utzi zion. Kontatu digunez, "Faltan izaten nuenez, etxean kartoi zati batean edo mihise batean margotzen nuen". Mihisetik oihalera era naturalean egin zuen salto: "Etxean oihalezko poltsa asko nituen eta akrilikoarekin margotzen hasi nintzen, baina ez da oihalean margotzeko egokiena, ehun-margoa behar da".

Horrela hasi zen oihalezko poltsak margotzen, bere buruarentzako. Jendea galdezka hasi zitzaion ea nondik atera zituen, eta halako batean lagunek proiektu bat abiatzea proposatu zioten. "Oihalezko poltsak modan daude, oso praktikoak dira eta mundu guztiak erabiltzen ditu. Zergatik ez hasi proiektu bat eta saltzen hasi?", iradoki zioten.

Jaramon egin zien. Aste horretan bertan proiektuaren izena pentsatzen hasi zen, sare sozialak zelan antolatu erabaki eta astearte batean "topera jarri eta dena atera" zuen. 2020ko urtarrilean izan zen. Ordutik, @onlybibe Instagram kontuaren bitartez ematen du bere lanen berri. Bertan, egiten dituen lanak igotzeaz gain, inspirazio iturriak zabaltzen ditu.

Xehetasunetik sortzen

Irudi abstraktuak, forma geometrikoak eta biribilduak gustatzen zaizkio. Ideia garatzeko xehetasunei erreparatzen die, izan naturako elementuei, kolore jakin bati, eraikinei, janariari… "Detaile txikietatik sortzen dut, puntu batetik abiatzen naiz zerbait berria sortzeko". Instagrameko kontuan marrazki bat igotzen duenean, hori sortzeko erabilitako inspirazio iturrien irudiak ere argitaratzen ditu.

Esan bezala, Larizgoitiak ez ditu soilik oihalezko poltsak marrazten. Orain gutxi zorroak egiten hasi da, eta koadroak berrartu ditu eskari batzuei esker. Gogotsu dago lagun batek bere etxeko egonge-

la marrazteko eskatu diolako. “Asko pozten nau jendeak etxean nire marrazki bat izateak, nire sinadurarekin eta nire esentziarekin. Horrek esan nahi du nire estiloan sinisten dutela, eta gustatu behar zaie, abstraktua delako”. Inoiz jertseak egitea pentsatu du, baina horrek lan karga nabarmen handitzeaz gain, espazio eta aurrekontu arazo bat ekarriko lioke. Izan ere, neurri eta kolore askotako jertseak izan beharko lituzke etxean, eta aurrekontuari zorrotzago jarraitu beharko lioke.

Logelatik mundura

Bere logela du estudio Libe Larizgoitiak. Asko gustatuko litzaioke berarentzako lokal bat izatea, baina momentuz pozik dago etxean: “Zorionekoa naiz mahai handia daukadalako eta argi asko sartzen delako”.

Poltsak non saltzen dituen galdetuta, ohartu gara sare zabala osatu duela. “Hasieran auzoko jendeak eskatzen zizkidan, baina orain ezagunen bitartez pixkanaka gero eta gehiago zabaltzen ari naiz. Badakit Ibizan, Salamancan, Madrilen eta Santanderren daudela batzuk”. Poltsa erosi nahi diona Bilbon badago eskura ematea gustatzen zaio. “Jendea ezagutzea gustatzen zait, eta beti galdetzen diet ea nola ezagutu duten Onlybibe”, diosku.

Leku askotan aurkitu daitezke Onlybiberen poltsak eta zorroak, baina ezinezkoa da bi berdin ikustea. Izan ere, denak dira diseinu berriak, eroslearen eta artistaren artean sortutakoak. “Poltsa bat eskatzen didatenean aurretik ikusitako baten argazkia bidaltzeko eskatzen diet. Erreferentzia horretatik abiatzen naiz eta lau bozeto berri sortzen ditut soilik pertsona horrentzako. Berak bat aukeratu eta zein kolore nahi dituen esaten dit. Bien artean poltsa bakarra egiten dugu, eta bakoitzak berea dauka,



Libe edo bibe

Bitxia da Onlybibe izenaren sorrera. Haur Hezkuntzako irakasle da Libe, eta haur txikiek zailtasunak omen dituzte bere izena ondo ahoskatzeko. Horregatik, askok ‘bibe’ esaten diote Libe beharrean. “Gaztelaniaz ‘vive’ bizitzea da, eta hori da marrazten dudanean sentitzen dudana, bizitzea, esperimentatzea…”. Instagram kontua irekitzera joan zenean, ordea, @bibe izena hartuta zegoen, eta hortik ‘only’ gehitzearen beharra; bakarrik ‘bibe’, soilik bizi.

Urte bat eta lau hilabete baino ez dira igaro Onlybibe jaio zenetik, baina prozesua “oso positiboa” izan dela onartu digu Larizgoitiak. “Asko ikasi dut gauzak kudeatzen, ondo antolatzen, sare sozialak erabiltzen… eta dena nire kabuz egin dut”. Nabari zaio harrotasuna irribarrean, eta ez da gutxiagorako. “Pertsona moduan hazten ere lagundu dit, sentimenduak eta emozio txarrak bideratzen ikasi dut”, argitu digu.

LOS ABORÍGENES
LORCA, DALÍ, BUÑUEL
maiatzaren 06tik
maiatzaren 23ra
www.pabellon6.org

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

PESTO BILBOTARRA

Botikazar Erriberara gerturatu gara apirilean. Adrianak, Paulak eta Ericek ireki digute Il Basilicoren atea. Leku txiki eta atsegina da, baina ez dute gauza gutxi egiten barruan. Italiako sukaldaritza eta bertokoa nahastu dituzte hainbat errezeta propio osatzeko.

Zailtasun maila: erraza

Egiteko denbora: 10 minutu

Prezioa: pasta 8,50 euro; lasagna 9,50 euro

Berezitasuna: saltsa oso ezagun baten egokitzapena da, hemen soilik jan daitekeena.

Kontu batzuk

Martxoaren 22an ireki zuten Adriana eta Paula ama-alabek Il Basilico. Janari italiarra prestatzen dute bertan jan edo etxera eramateko. Zehatzago, Italiako errezeta tradizionalak berrasmatzen dituzte bertoko gastronomiarekin nahasiz. Oraingoz 8 saltsa egiten dituzte, beste 8 pasta motarekin konbinatu daitezkeenak. Lasagnak ere egiten dituzte, sei desberdin, bai eta haragia ere. Su motelean egiten dituzte plater asko, 12 ordura arteko egosketa-denborarekin. Janaria zerbitzatu, ordea, berehala egiten dute. Itxarote-denbora luzeena 20 minutukoa da, lasagnen kasuan. Momentuz telefonoz hartzen dituzte eskariak eta bertan jaso behar dira.

Il Basilico tabernako Eric eta Adriana

il basilico
GASTRO BAR ITALIANO

IL BASILICO

Botikazar Erribera 22 (Deustu)
688 710 059
@ilbasilicopastas
ilbasilicopastas@gmail.com
https://ilbasilicopastas.com/

Zelan egin?

Genovako pestoak ez ditu azken hiru osagaiak erabiltzen (espinakak, esne lurrundua eta piperbeltza). Il Basilicon hauek erabiltzen dituzte saltsa beheratzeko. Errezeta tradizionalean bezala morteroan txikitu beharrean, osagaiak irabiatu egiten dituzte. Saltsa prest dagoenean pasta freskoa egosten dute (2 minutu) eta jateko prest dago.

OSAGAIAK

Oliba-olio birjina estra
Pinaziak
Albaka freskoa
Gazta parmesanoa
Berakatza
Espinakak
Esne lurrundua
Piperbeltza
Pasta fresko italiarra

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

MADDI ARGOTE LEDESMA
Dantzaria

URTEBETE JADA EZ NAIZELA AGERTOKIRA IGO

Ez nuke tarte hau auto-propagandarako erabili nahi, baina garrantzitsua iruditzen zait artistok ibilbide honetan jasan behar izan dugunari buruz hitz egitea.

Urtebete da ez naizela antzezlekura igo eta egin izan dudanean maskararekin egin dut. Hilaren 10ean Gernikan dantzatzeko aukera izan nuen. Ikuskizunak *Ausarta* du izena. Jose Luis Magaña mexikarrak sortu zuen koreografia artistikoa, Gernikako bonbardaketari erreferentzia eginez. Hainbat dantzari ezezagun eta kultura askotakoak batu ginen esperimentu honetan parte hartzeko. Dantzatzeaz gain, gure arteko harremana sustatzea eta koreografian islatzea zuen helburu. Horretarako, hiru egun besterik ez genituen, beraz, ez zen lan makala izan.
Hala ere, mugarik gogorrena pieza osoa dantzatu behar izan genuenean topatu genuen. Hiru egunez piezaren interpretazioa lantzen egon ginen, eta, bat-batean, maskara batekin topatu ginen, gure emozioak guztiz baztertzen zituena.

Aurten bigarren aldiz taulara igotzeko aukera izan dudanean, berriz ere maskara batekin izan da. Are arrotzagoa, izan ere, audizio bat izan da, eta audizioek berez itolarria ematen badute, pentsa aurpegi erdia estaltzen dizun horrek emango dizuna.

Nahiz eta guk mugimenduaren bidez transmititzen dugun, dantzaria aske sentitzea ezinbestekoa da interpretazio aldetik fin egoteko. Eta horregatik diot urtebete daramadala agertokira igo gabe. Hala ere, proiektu politak izan dira eta horregatik ikustera animatzen zaituztet gogoeta honekin batera. *Ausarta* piezaren saio gehiagoren esperoan gaude, adi ibili. Bigarren obra opera bat da: *Los Siete pecados Capiales*. Kurt Weillek zuzendu du eta Iratxe Ansa Donostiarra ibili da koreografia lanetan. 2021eko ekainaren 4ean eta 5ean Arriaga antzokian ikusgai izango duzue.

ENARE MUNIATEGI ETXABE
Elorri bertso-eskolako kidea

ALARMA

Doinua: Sentimendua sartu zitzaidan

Urtebetean noiz helduko zain
musukatzeko aukera
zain noiz helduko mugarik barik
bidaia zu ikustera.
Esperantza zein gogoa topaz
zaindu gurean norbera
eta datu baltz danen artean
argia dator geurera,
antza maiatzak dakar alarma
egoeran bukaera

Alarman urte bete luzean
“bizitza egiten” edo,
baina benetan alarmagarri
zer den pentsatu ezkero,
alarma motak hainbeste dagoz
hainbat tipo zein genero
errealista naiz eta larregi
ezin daiteke espero,
alarma hotsak esnatzen bainau
sei t’erdietan goizero

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Metodologia guztiz berria erabiltzen dugu, unibertsitate guztiek erabili beharko luketena”

Ekaitz Hurtado Maniche (Bilbo,18 urte) Humanitate Digital Globalak graduko lehen maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza nire auzoko eskola batean egin nituen, Tiboli eskolan. Gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Artxandape ikastolan egin nuen. Azkenik, Batxilergo Zientifikoa Begoñazpi ikastolan ikasi nuen. Nire zaletasunak euskal dantzak eta eta irakurtzea dira.

Zergatik aukeratu zenuen Humanitate Digital Globalak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Hasieran ez neukan oso argi zer ikasi unibertsitatean, bakarrik nekien gauzak aldatu nahi nituela. Horrela, Mondragon Unibertsitateko emakume bat etorri zen Humanitate Digital Globalak graduari buruz hitz egitera Begoñazpira. Emakumea entzun eta gero, argi izan nuen ate irekietara joateko beharra nuela.

Nolakoa izan da orain arteko esperientzia?
Momentuz oso pozik nago, nahiz eta pandemiaren ondorioz irakasleek euren planteamenduetako batzuk egokitu behar izan dituzten. Orain arte ikasi dudanarekin badakit gauzak aldatzeko bide egokitik eta zuzenetik noala. Gainera, lana bilatzerako orduan Mondragon Unibertsitateak enpresa askorekin kontaktuak dituenez, aukera eman diezakegu leku egoki batean lan egiteko.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Guztiz berria dela, eta nire ustez unibertsitate guztiek erabili beharko lituzkete horrelako metodologiak. Hori bai, oraindik gai batzuk hobetu behar dira zeren eta metodologia berria izatean egoera berri batetik hasten dira eta esperimentazio-fasean daude.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?
Lehenik, gustatzen zait ikaskideekin dagoen harremana eta nola gure artean laguntzen garen. Bigarrenik, irakasleekin daukagun harremana bikaina da, beti laguntzeko prest daude. Azkenik, asko gustatzen zait graduak errealitatearekin duen lotura: leku ezberdinetako jendea etortzen da gaiei buruzko hitzaldiak ematera. Baina gauza bat ez zait gustatzen; ez daukagu harremanik Unibertsitatean dauden beste ikasketetako ikasleekin.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
Giza Eskubideak defendatzen dituen eta ekologiaren alde dagoen erakunderen batean lan egin nahi dut.

Bilbon euskaraz

Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez PREST! aldizkariaren babesle eta jaso opari 20. urteurrenaren lamina.

Urtean 25 euroren truke beste 20 urte irauten lagunduko diguzu!

Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!